

# AFRIKA'KO IPUIN / ALEGIAK



## UNTXITXU BARRU-LARRIA

Landetan untxitxu barru-larri bat bizi zan eta leoiarra ta leoiemea ibiltera urteten ikusten ebazanean, esaten eban:

—Zergaitik jaio nintzan ni untxi? Bedarrak baiño besterik ezin dot jan eta leoi orreik basauntzak be jaten dabez. Ni makala ta bildurtia naz!

Baiña txarrago oraindiño ikusi eban bere burua, leoi biak euren umea lenengoz atera ebenean.

—Ene Jainkoal! Zer polita dan! —esan eban negarrez untxiak. Ni leoia ba'nintz, orrexegaz ezkonduko nintzake!

Bere abira biurtu zanean, untxitxuak ezin egin izan eban lorik. Leoikumea eukan buruan!

Orregaz ezkontzeko ni leoi biurtu bear naz eta orrelan okela biguna be beti eukiko dot indarra eta adorea lortzeko.

Burutasun bat sortu jakon eta urirantza joan zan.

—Kendu ortik, ganorabako untxi ori! —esan eutson txakur batek.

Ieneak, ostera, esan eutson:

—Ez dakit zergaitik ez zaitudan iruntziten kopau baten!

Dortokeak esan eutson:

—Zoaz zure basobaltzera, adiskide! An janaria naikoa eta askatasuna eukiko dozuz! Emen urian guztiak dira etsaiak eta etoiak.

Untxiak erantzun eban bare-bare:

—Tira ba. Aolku gitxiago emon niri, nik ba-dakit zer egin-eta!

Etixerik etxe ebillala, salerosle baten dendara eldu zan untxia:

—Leoi-narru bat bear dot.

—Leoi-narru bat? Ain txikia zara! Ez dakit egongo dan zure neurrikorik!

—Zuk emon egistazu leoi-narru bat eta itzi egistazu nai dodana egiten!

Urrengo egunean untxia eldu zan leoiaren abira, leoi-narruz jantzita.

—Egunon, leoi jauna!

—Nor zara eta zer nai dozu ordu onetan?

—Ni leoi gazte ta sendo bat naz eta zure alabearen eskua eskatzera nator!

—Um! Esan eban leoiemeak. Zu txikiegia ta motzegia zara!

—Gosea dagon lurralde batetik natorrelako da ori. Nik gose aundiak igaro dodaz!

—Ori bai ba-dala —esan eban leoikumeak. Leoi bat gosez? Orrek esan gura dau ezertarako be ez dozula balio! Nire aitak beti ekarten dau okela biguna! Adiskide! Jarraitu egizu zure bidea!

Untxitxua lotsatuta zeozer esaten asi zan leoia beraganatzeko, baiña andik txakur bat igaro zan orduan. Untxiak jauzi aundi bat egin eban basora iges egiteko eta leoi-narrua jausi egin jakon. Txakurra, iruzurra igarrita, bere atzean

joan zan eta laster ekarri eba untxia samatik oratuta eta onek bere anakak  
luzaten ebazan bere arrokeria ezagutuz, eta leoiak esan eban.

—Bere izaerea gorroto dauanak, ez dauka zertan larritu etorri leikiozan zori  
txar guztiakaitik.

✠ OLAZAR´tar Martin´ek